

Titia

Maiden IANTZI
GOIENETXE

Besta batean, pinak min egiten zidalako ohartu nintzen ezkerreko bularra hazten hasia zitzaidala. Oraindik senti dezaket titiburu ttiki horren taupada, orratzak zulatutako kamisetapean. Baita, handik urte batzuetara, haurdunaldiaren seinale izan nuen guritasun hori ere, pontxo goxoaren barnean laztanka ibili nuen sentikortasun sekretua, odol analisisien emaitzaren zain eman nuen paseo gozagarri hartan. Eskuak titiei itsatsita, obra baten ondok igarotzen, irribarrez.

Hala dut orain umea, titiburu bat ahoan, bertzea eskuan, tinko eta samur, bere planetan, ni bezala, zutabe hau

idazten ari naizela. Azkenak nahiko pertsonalak joan zirenez, orekatze aldera distantzia gehiago hartzea zen asmoa, zerbait “intelektualagoa” sortzea. Esnea atera zait, ordea.

Gelditzeko eta egoteko aukera izaten ari da nire titia. Imajinatu ere egiten ez nuen konexioa. Eszitazioa. Beroa. Indarra. Ahalmena. Gosea. Zabaltzea (zentzu ugaritan). Bizimodua eta lan egiteko era bera moldatzea. Josteta. Nekea ere bai. Bipolaritasuna areagotzea. Are errazago sumintzea. Loti izateari uztea. Lo intermitentea. Lo arina. Lo eta erne aldi berean zauden egoera berezi hori. Gogo gehiago izatea, gogo guttiago izatea. Izerdia. Sena. Oinarria. Sakona. Azala.

Barnea. Zentroa. Arnasa. Poza. Inspirazioa. Harridura. Eman eta jaso, jaso eta eman etengabe bat. Tarteka zakarra eta zimikolaria. Tarteka ezin leunagoa. Inoiz ausikilaria. Hozkia. Lasterketa-auto, traktore, suhiltzaile kamioi eta orotariko ibilgailuen errepidea (oraintxe pipi ari da masadera). Hortz, hagin eta katarroentzako botika. Lasaigarria. Suspergarria. Etxea. Gabona. Egunona. Musua. Zenbat eta gehiago edan, txorrota handitzen duen iturria. Tenperatura eta osagaiak egokitzen doana. Elikagairik onena. Momentu honetan agorrezina... Hori dena!

«Utzi titiak betetzen», erran dit, maisailak gorrituta. •

Udal zaindariak

Xabier Mikel
ERREKONDO

9m. Parabellum. Hori da zehazki etorkizun hurbilean erkidego osoko udaltzainek gerritik zintzilik eraman beharko duten arma, Jaurlaritza lantzen ari den Lege Dekretua aplikatzen denean.

Jaurlaritzak udalen segurtasun-eskumen apurak apurtu, bereganatu eta hauek mendeko bilakatu nahi ditu, udaltzainak ertzainduz.

Jaurlaritza garai bateko “Erroma” bailitzan ari da, eta Zesar Julioaren itzaletik K.o. III. milurteko Zesar Urkulluk bere “potestas” boterea ezarri nahi du lurralde osoan. Ezustean, baina, harritxintzar bat agertu zaio zapatan: Lea-

Artibai eskualdean hiru herri txikik osatu komunitate txiki batek aurre egitea erabaki du, temati; herritarrak Zesar Urkulluren eskuetan ez dituzte abandonatu nahi.

Zesar Urkulluk Euskal Poliziaren zaku berean nahi ditu Ertzaintza eta Udaltzaingoak, denak erromatar. Ostera, udalerri guztiek onartzen al dute? Ez, bada komunitate txiki bat... herri txiki-tako herritarren beharretara egokitutako zaindariak nahi dituenak, herritarrengandik hurbil, euskaraz bai ala bai, gertutasunez eta garden arituko direnak eta edozein beharretan bitartekaritza egingo dutenak.

Ondarroako, Lekeitioko eta Markina-Xemeingo udalek Jaurlaritzaren polizia “pretoriar” eredu ilunari erresistentzia jartzeko erabaki irmoa hartu dute, mahai luzean bildu eta lan eskaintza publiko bateratua egitea adostu dute, ohore guztiekin sinatu eta argizari gorritz zigilatu.

Etorkizunean posible izango ote da armarik gabeko polizia eredurik? Gaude lasai, negozioa eta irudia jokoan... arduratu da Jaurlaritza horrela izan ez dadin.

“Erroma”-ko botere ahalguztidunaren oldarraldia geldi ote dezake herri txiki batzuen erromantizismoak? Ai, baleza! Zabal bedi Lea-Artibaiko komunitate txikiaren hazia. •